

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 573/2020 Erabakia, azaroaren 17koa. Onespena ematea azaroaren 10eko 553/2020 Erabakian atzemandako hutsa zuzentzeko, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean kultura jarduera suspertzeko laguntza gisa emango diren kultura bonuen aparteko laguntzen deialdiarena

Gobernu Kontseiluaren azaroaren 10eko 553/2020 Erabakiaren bidez, Kultura Bonuen ezohiko deialdia onetsi zen, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean kultura jarduera suspertzeko laguntza gisa, COVID-19aren eraginaren ondorioz.

Erabaki horren I. eranskinaren 3. artikuluan, deialdi hori arautzen duen araudia eta, zehazki, aurrekontu partida eta gehieneko zenbatekoa jasotzen dituen horretan, akats material bat aurkitu da, Kultura Zuzendaritzak programari lotutako funts publikoak agortu direla justifikatzeko ebazpena emateko duen betebeharra aipatzen baita, eta aipamen horrek ez du agertu behar.

Horrenbestez, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Gobernu Kontseiluaren azaroaren 10eko 553/2020 Erabakiaren I. eranskinaren 3. artikuluan atzemandako akats materiala zuzendu behar da. Erabaki horren bidez, Kultura Bonuen ezohiko deialdia onetsi zen, kultura jarduera suspertzeko Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean eta COVID-19aren eragina arintzeko.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bileran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehena. Onespena ematea Kultura Bonuen aparteko deialdiaren I. eranskineko 3. artikuluan atzemandako akats materialaren zuzenketa. Deialdi horren bidez kultura jarduera suspertu nahi da Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean, COVID-19aren eragina arintzeko.

Horrela, 3 artikuluan hau dion lekuan:

“3. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa.

Laguntza hauetarako 55.000 euro zuzkitu dira, eta honako aurrekontu partida hauen kargura egotziko dira:

- 49.500,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 70.1.05.73.02.480.00.01 partidaren kontura.

- 5.500,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 70.1.05.73.02.480.00.01 partidaren kontura.

Programa honi lotutako funts publikoak aurreko paragrafoan adierazitako aurretiaz agortzen badira, Kultura Zuzendaritzak egoera horri buruzko ebazpena emango du.”

Hau esan behar du:

“3. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa.

Laguntza hauetarako 55.000 euro zuzkitu dira, eta honako aurrekontu partida hauen kargura egotziko dira:

- 49.500,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 70.1.05.73.02.480.00.01 partidaren kontura.

- 5.500,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 70.1.05.73.02.480.00.01 partidaren kontura.”

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 17a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria

M. INMACULADA SÁNCHEZ ARBE